



## **KIROL ESKOLEN IZEN-EMATEA BERRETSI (6-14 URTE)** **2024-2025 DENBORALDIA**

"Sasoiko udal kirol jardueretarako izen-ematea arautzen duen ordenantzaren" arabera, udal kirol eskola batean izena emanda dauden hurrek hurrengo denboraldirako lehentasuna dute gainerako eskaeren aurretik. Plaza erreserba hori praktikatzen ari zen kirol jardueran "berrizen-ematea" izapidetuz egiten da.

Iaz bezala, Udalaren Kirol Zerbitzuak familiei hurrengo urterako izen-ematea erraztea erabaki du, **UDAL KIROL ESKOLETAN PARTE HARTZEN DUTEN HAUR GUZTIEI MATRIKULA AUTOMATIKOKI BERRITUZ, BAKOITZA BERE KIROL MODALITATEAN**. Beraz, ez da berritze-izapidetik egin beharko.

**Datorren denboraldian kirol eskolan jarraitu nahi ez duten hurrek soilik eskatu beharko dute baja, idatziz Udal Kirol Zerbitzuan edo [deportes@huarte.es](mailto:deportes@huarte.es) helbide elektronikoan, APIRILAREN 5a arte, bestela, matrikula berrituzat joko da eta jardueraren zenbatekoa ordaindu beharko dute.**

Matrikula berritu ondoren, Kirol Zerbitzuak ikasle bakoitza datorren ikasturtean dagokion entrenamendu-taldean kokatuko du, irizpide teknikoen arabera (adina, maila, etab.).

Kirol-jarduera bakoitzaren egunak eta ordutegia Udalaren webgunean argitaratuko den eta maiatzaren amaieran herrian postontzietan jarriko den jardueren liburuxkan zehaztuko dira. Matrikula berritu ondoren, ordutegi-bateraezintasunagatik baja hartu nahi duenak idatziz egin beharko du Udalaren Kirol Zerbitzuaren bulegoetan, ekainaren 1a baino lehen.

Kirol eskola batean lehen aldiz izena ematen duten hurrek (23/24 denboraldian izena eman ez dutenek edo kirol-jarduera aldatu nahi dutenek) irailean irekiko den aurre-inskripzio epean eman beharko dute izena, eta hori ohiko bideak erabiliz iragarriko da.

Gogoan izan igeriketa-ikastaroak eta kirol aurreko jolasak ez direla kirol eskolatzat hartzen, eta, beraz, ez dagoela matrikula berritzerik. Denboraldi bakoitzean aurre-inskripzioa egin behar da, plazen zozketan parte hartuz.

## **JARDUEREN PREZIOA**

- Uharten erroldatutako pertsonak, hala nahi badute, familia-unitatearen **2023ko errenta-aitorpenean** jasotako diru-sarreraren arabera ordaindu ahal izango dute jarduera, eta zazpi tarte desberdin ezarriko dira: T1 5.000 eurotik beherako per capita errenta, T2 5.001-8.000 euro bitartekoa, T3 8.001-10.000 euro bitartekoa, T4 10.001-15.000 euro bitartekoa, T5 15.001-20.000 euro bitartekoa, T6 20.001-30.000 euro bitartekoa eta T7 30.001 eurotik gorakoa. (Ikusi taulan tarte bakoitzari dagokion kuota).

Horretarako, 2023ko errenta osoaren aitortenaren fotokopia aurkeztu beharko da Udaleko bi erregistro-bulegoetako edozeinetan (bulego orokorretan edo Udal Kirol Zerbitzuko bulegoetan) edo, bestela, helbide elektronikoa honetan: [declaración-aitorpena@huarte.es](mailto:declaración-aitorpena@huarte.es); EPEA IRAILAREN 27AN AMAITUKO DA.

- Errenta-aitorpena epe barruan aurkeztzen ez duten erroldatutakoei, goiko tarteari dagokion zenbatekoa aplikatuko zaie.

- Per capita errenta kalkulatzeko da errenta-aitorpeneko zenbatekoa (507, 8810, 8808 laukitxo batura, ken 708 laukitxoa) aitortenean agertzen diren kideen kopuruetatik zatituz.

- Jarduerak bi epetan ordainduko dira: urrian eta otsailean, denboraldi osoko jardueretarako.

<b>18 URTEK BEHERA</b>							
	<b>T1 PCE</b>	<b>T2 PCE</b>	<b>T3 PCE</b>	<b>T4 PCE</b>	<b>T5 PCE</b>	<b>T6 PCE</b>	<b>T7 PCE</b>
	<b>&lt;5000</b>	<b>5001-8000</b>	<b>8001-10000</b>	<b>10001-15000</b>	<b>15001-20000</b>	<b>20.001-30.000</b>	<b>&gt;30.001</b>
<b>Erroldatua</b>	48,50€	88,00€	109,00€	120,50€	132,50€	147,50€	162,50€
<b>Abonatua / Erroldatua</b>	35,50€	65,00€	80,50€	89,00€	97,50€	108,50€	119,50€
<b>Abonatua / Ez erroldatua</b>	119,50€						
<b>Ez erroldatua</b>	186,00€						

("Errenta-tartea arautzen duen ordenantza" da errenta-aitorpenaren bidez tasen funtzionamendua arautzen duen araudia. Hemen kontsulta dezakezu: [www.huarte.es](http://www.huarte.es))